

**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

Igandean GIRO MUNDIALA izan zen Erreterian, denok helburu eta pentsamendu bakarrarekin, EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK hezkuntza sareko AUKERA BAKARRA izan behar duela hain zuzen ere. ELIZALDE HERRI ESKOLAREN izenean ere, MAKINA BAT ESKER guregana ogitarteko eta talo bila etorri zinetenei. Janari dena AMAITU genuen, eta gogoratu irabaziak ZAPOREAK proiektura doazela oso osorik. MILA ESKER ere LANEAN aritu zineten gurasoei eta irakasleei, lan bikaina egin zenuten!! Datorren urtean BASTIDAN elkar ikusiko dugu!!

Elizaldeko Guraso Elkarte



# makina bat taupada

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2

**erreteria**

**EUSKAL DANTZA**

Gaur arratsaldean, ostirala, Elizalde Dantza Taldeak herriko plazan emanaldia eskainiko du arratsaldeko 19:00etan. Gainera, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko ikasleek gelan ikasitakoa ere eskainiko dute. Hurbildu ikustera.

**ARRAUNA**

HIBAICA arraun elkarteak, 8 urtetik 12 urte arteko ikasleentzat arraun ikastaroa antolatu du. Goizez izango litzateke, 09:00etatik 13:00etara uztailleko egun batzuetan. Interesik edukiko bazenute idatzi [info@hibaika.com](mailto:info@hibaika.com) helbide elektronikora.

**ORONA**

Oronak, datorren udaran, udaleku teknologikoak antolatu ditu. Zuen seme-alabak bertan matrikulatu nahi izanez gero deitu 943000333 edo sartu [www.kode-eskola.eus](http://www.kode-eskola.eus) web orrian. Bertan informazio gehiago lor dezakezue.

**MEDIATEKA**

Ikasturtea bukatzen ari denez, zuen seme-alabek etxean dituzten mediatekako liburuak ekarri behar dituzte. Guk eskolan gogorarazteaz gain, zuek etxean gogoraraztea ere asko eskertuko genuke.



**OIARTZUNGO** Trikitixa Jaialdia

**AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA ETA IRUNGO MUSIKA ESKOLAKO  
TRIKITIXA IKASLEEN**

**ARTEKO ELKARTRUKATZE JAIALDIA herriko plazan  
2019ko Ekainaren 9an-12:00tan**

## **JANGELA**

Datorren ikasturtetik aurrera, ohiko menuaz gain, menu begetarianoa, txerrikirik gabekoa, obolaktobegetarianoa eta obolaktobegetarianoa arrainarekin edukitzeko aukera izango duzue. Bestalde, ohikoa den bezala, Osakidetzako agiriarekin, alergiak dituzten ikasleen beharrak jaso eta kudeatu ditzakegu. Dударik izanez gero edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943490193 telefono zenbakira deitu.



## **JARDUN JARRAIA**

Lerro hauetatik gogorarazi nahi dizuegu, hurrengo ekainak 13tik aurrera, jardun jarraiko egutegia hasiko dugula. Hori dela eta, jangelarik ez duten ikasleen ordutegia 13:00etan bukatuko da; jangelan bazkaltzen dutenena berriz, 15:00etan.

## **HHI/EPA**

Errenteriako HHI/EPA gurekin harremanetan jarri da. Datorren ikasturtean, gurasoei euskarazko saioak emateko aukera izango dute gure ikastetxean, ikasleak eskola orduan dauden bitartean. Zuen interesak hobeto ezagutu eta ordutegien kudeaketa egoki bat egin ahal izateko, deitu eskolako telefono zenbakira eta zuen lehentasunak jasoko ditugu.

[www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es](http://www.elizaldekogurasoelkarta.blogspot.com.es) eta [www. elizalde.eus](http://www.elizalde.eus)

